

Kartzelak

Antton Izagirre

XVIII. mendean preso guztiak batera behatu eta kontrolatzeko sortutako espetxe ereduari “panoptikoa” deitu zion Jeremy Benthan filosofo ingelesak. Begi bakar batek puntu jakin batetik preso guztiak batera begira zitzakeen. Gerora, metafora modura, Michel Foucaultek XX. mendean ideia bera erabili zuen gure gizarteari jo-kaera jakin batzuk nola inposatzen zaizkion irudikatzeke.

Gauden itxialdiaren talaiatik begira jarrita, eskura datorkigu ikuspegi panoptikoa: etxea, auzoa, kalea, mundua, kartzela handi baten modura nola eraiki diguten begiratzeko.

Estatu espainiar guztiahaldunak giza-banakook eta gizartea larrugorritan, biluzik utzi gaitu; geure-geureak ditugun eskubide guzti-guztiak eten dizkigu eta

botere polizialaren begi handiaren begirada eta zaintzapean gure ezintasunak inoiz ez bezala agerrarazi ditu.

Kartzela horretan preso sumatu ditugu gure gertuko agintariak ere. Haien esanetan, burujabetza, agintea, autonomia, erabaki gaitasuna, politika, herri eskubideak... ustez sendoak ziruditenak, erdi ustel gertatu dira.

Eguna joan eta eguna etorri erreguka ikusi ditugu, arren aintzat har ditzaten eskean, gure burujabetzak buztinezko hankak dituen egia herritarren aurrean lotsagarri gera ez dadin. Ahaleginak ahalegin, begi bistan utzi du espainiar Estatuak herri gisa dugun ahalmen politikoaren muga. Alarma egoerak eraiki duen kartzela politikoa ezin izan dute moztaratu.

Etxeetako kartzelak balkoietan ikusgai egin ditugu, ezkontzak, zorion agurrak,

pintxo-poteak, festak, musika emanaldiak, txaloak... guztiontzat ikusgai.

Itxialdiak, gutako bakoitzaren barne kartzelak ere estalgabetu ditu. Gure gaitasunak eta miseriak, ahuleziak eta indarguneak azaleratu dizkigu, beldurrak, ezintasunak, emozioak, pozak eta tristurak... Gardenagoak egin gaitu.

Bitarte honetan irakurgai izan dudan horietako batean zioen moduan, milaka “panoptiko” asmatzen ditugun arren, inguruko azpisistema ugari ezkutuan gertzen zaizkigu.

Eta bururatu zait, gure etxeetako ate atzeak balira moduan, inoren begietatik kanpo geratzen direla, besteak beste, etxe horietan tratatu txarrez menperatuak dau-den emakumeen kartzelak edota espetxe errealetan preso dirauten euskal herritarren eskubide ukatuak. •

Oraindik garaiz zaudete

Miren Azkarate
Badiola

Antonio Gonzalez Pacheco, *Billy el Niño*, zendu zen aurreko astean, hilabete honetako kolaborazioa tokatzen zitzaidala jakin nuen egun berean. Polizia erretiratu hau zoritxarrez oso ezaguna izan genuen frankismoan eta bere izena beste hainbat torturatzailerena bezala letra gorritz idatzi dugu urte hauetan zehar. Egindako krimenengatik epaitu gabe eta domina guztiekin eraman du koronabirusak betiko, nahiz eta askoren burueta-rik ez den sekula aldenduko.

Ez naiz oso zalea lerro hauetan alderi politikoei esaten eta egiten dutena komentatzekoa, baina ezin diot iskin egin oraingo honetan Podemoseko Irene Monteroren txio bat erantzuteko gogoari. Bertan, barkamena eskatzen die polizia honek torturatutako pertsoniei, ez baitira garaiz iritsi, amorru handia omen du. Ez, ez dira iritsi, baina emakume hau lasai egon daiteke eta arantza hori kendu, zoritxarrez badauzkagulako haiek demokrazia deitzen duten honetan Antonio Gonzalez Pa-

checo bezalako basakeriak egin dituzten torturatzailleen izen gehiago, zerrenda luze bat. Hori guztia estali eta ahalbidetu duen bere kolega eta ministroa ere, urrutira joan gabe, hortxe du ondoan, galdetzea besterik ez dio gaia-ri buruz. Beraz nire gomendioa, demokrazian torturatutako bat izanik lanean has dadin da, berriz ere berandutu baino lehen, lan asko du eta! Frankismoan torturatutakoetara ez dira iritsi baina demokrazian milaka gaude justiziaren eta egiaren zain. •